

4. DIRU SARRERAK

Argi dago gaur egun edozer gauza aurrera eramateko dirua behar dela, beraz, hainbat ideia ditugu diru hori lortzeko.

Egingo dugun lehenengo gauza Eusko Jaurlaritzarekin kontaktuan jartzea da gazteen ekintzailletza laguntza eskatzeko; izan ere, Eusko Jaurlaritzak ekintzailletza ideia aurrera eramateko 1.000€ ematen ditu pertsona sustatzaile bakoitzeko. Gainera %15 batean handitzen da sustatzaileak 18 eta 30 urteen artean badute eta %15 handitzen da emakumeetan. Gure kasuan, taldean 3 neska eta mutil bat gara 15 eta 30 urteen artean, hori 5050€ guztira izango litzateke, beraz diru sarrera handi bat izango litzateke.



Horrez gain, taldearen artean inbertsio ekonomiko txiki bat egingo dugu proiektua aurrera eraman ahal izateko. Horretarako gure aurrezkitik bazkideak ordainduko ditugu lehenengo produktuak eratzeko, sudaderak 62€etan salduko ditugu eta beraz enpresaren diru sarrera handiena izango da, hasiera batean 100 sudaderen produkzioa egingo dugu. Produktuak salduta aurrerago azalduko ditugun ekintzak burutuko ditugu. Dirua irabazten dugunean gure enpresaren produkzioa handituko dugu, hainbat ekintzen bidez beharrezko materialak kantitate handiagotan eskuratuko ditugu eta diru sarrera handiagoa izango dugu.

